## 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 30 EMPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENA ETA FORU ADMINISTRAZIOA

**Programa:** 920305 ZERBITZU OROKORRAK

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

**Departamento:** 30 FOMENTO DEL EMPLEO, COMERCIO Y TURISMO Y DE ADMINISTRACIÓN FORAL

**Programa:** 920305 SERVICIOS GENERALES

# SAILAREN MEMORIA

# MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

## I. MEMORIA

Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzaren 2022. urterako aurrekontua programa bakar batean jasotzen da: Zerbitzu Orokorrak, zuzendaritzaren helburua eta izate ko arrazoia jasoz: Arabako Foru Aldundiko hainbat unitateri zerbitzu orokorrak ematea, eta haien kudeaketa egiten da ekonomia, jasangarritasun eta eraginkortasuneko arrazoietan oinarrituz.

Ekitaldi honetan, jarraitu dugu gainerako sailei ematen zaizkien zerbitzuen mailari eusten eta hobe14tzen, gastu arruntari eusteko politika orokor baten barruan, Aldundiaren egitura produktiboaren zati handi bat osatzen duten tresnak modernizatzen, eta foru ondare eraikia egokitu, eraberritu eta eraikitzen, zerbitzu publikoak behar bezala funtziona dezan.

2022ko ekitaldian, batetik, Arabako Foru Aldundiko unitateetan izaera erkideko elementuak hornitzeko eta, bestetik, zerbitzuak emateko beharrezkoak izan ziren ekintza guztiak gauzatu zituen Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzak.

Funtsean, arestian aipatutako hornidurak eta zerbitzuak kontratatzea eta horiek guztiak modu zentralizatuan kudeatzea izan zen ekintzen helburua, bai eta Zuzendaritzako zerbitzuek zerbitzu jakin batzuk zuzenean ematea ere.

Era berean, ekipamendu zentralizatuko urteko planak diseinatu ziren, eta horiek gauzapenak isla izan zuen ekitaldiaren barruan bulegoko ekipoetan eta ekipo informatikoetan egindako inbertsioetan.

## II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

Programaren helburuak goian deskribatutakoak dira, eta helburu horiei lotuta benetan egindako gastuaren arabera kuantifikatu ziren.

## I. MEMORIA

El presupuesto para 2022 de la Dirección de Servicios Generales se encuentra agrupado en un único programa: Servicios Generales, recogiendo el objetivo y razón de ser de la Dirección: la prestación a las diversas unidades de la Diputación Foral de Álava de una serie de servicios de carácter general, cuya gestión se centraliza por razones de economía, sostenibilidad y eficacia.

Durante este ejercicio se ha continuado con el mantenimiento y mejora de los niveles de prestación de servicios al resto de departamentos, dentro de una política global de contención del gasto corriente, la modernización de las herramientas que componen buena parte de la estructura productiva de la Diputación, así como la adecuación, reforma y nueva construcción del patrimonio edificado foral que permita el normal funcionamiento del servicio público.

Durante el ejercicio de 2022 se llevaron a cabo desde la Dirección de Servicios Generales cuantas acciones resultaron necesarias para el suministro de elementos y la prestación de servicios de carácter común a las diversas unidades de la Diputación Foral de Álava.

Fundamentalmente, las acciones consistieron en la contratación de los citados suministros y servicios y en su gestión con carácter centralizado, además de la prestación de determinados servicios de forma directa por los distintos Servicios de la Dirección.

Igualmente se diseñaron los oportunos planes anuales de equipamiento centralizado, cuya ejecución se plasmó en las inversiones en equipos de oficina e informáticos realizadas a lo largo del ejercicio

## II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Los objetivos del programa, que no son otros que los arriba descritos, se cuantificaron en términos de gasto efectivo realizado en los mismos.

Ildo horretan, Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzari esleitutako aurrekontuaren gauzatze-maila –lehen aipaturiko helburu horiek betetzeko baliatu zen, oso-osorik (II-VIII. kapituluak)– esandako kapituluetan jasotako kontzeptu guztien araberako aurrekontuan jasotako zenbatekoen % 92era iritsi zen.

EKINTZA NAGUSIAK

Sasoia zenean egindako azpiprogramen sailkapenaren arabera ordenatuta, Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzak garatutako ekintza nagusiak honako hauek izan ziren (zenbateko guztiak BEZa barne adierazita daude):

**1.- Dirulaguntzak**

- Arabako Gurutze Gorriari lurralde historikoko laguntza sarean darabiltzan ibilgailuak konpontzeko dirulaguntza eman zitzaion, hitzarmenaren arabera, 6.000,00 euro emanda.

**2.- Langileentzako zerbitzuak**

- Hainbat gastu zenbatu dira (kalitatearekin lotutako gaiak eta Samaniegon Ukrainako familia errefuxiatuentzako bizitoki gisa erabiltzen diren etxebizitzetarako hainbat erosketa) 20.776,30 euroko zenbatekoan.
- Arabako Foru Aldundiaren telefonogunearen arreta zerbitzuaren kostua 106.118,34 euro izan da.
- Arabako Foru Aldundiko unitateetarako bulegoko material elementuak erosi ziren, kopiagailu eta inprimagailuen papera ere kontuan hartuta. Horien zenbatekoa 91.610,12 euro izan zen.
- Arabako Foru Aldundiko unitateetarako kontsumigarri informatikoak erosi ziren, guztira 38.841,68 euroko zenbatekodunak.
- Arabako Foru Aldundiko zenbait langile jantziz eta oinetakoz hornitzeko kontratu berriak esleitu dira, 71.585,95 euroko zenbatekoan. Ondoren, garbitegiaren kostua 7.474,84 euro izan zen.



En tal sentido, el grado de ejecución del presupuesto asignado a la Dirección de Servicios Generales, que se destinó (en sus Capítulos II a VIII) íntegramente al cumplimiento de los citados objetivos, alcanzó el 92% de los importes presupuestados por todos los conceptos comprendidos en los capítulos mencionados.

PRINCIPALES ACCIONES

Ordenadas de acuerdo con la clasificación de subprogramas realizada en su día, las principales acciones desarrolladas por la Dirección de Servicios Generales fueron las siguientes (todos los importes son IVA incluido):

**1.- Subvenciones**

- Se subvencionó a la Cruz Roja de Álava la reparación de sus vehículos destinados a la red de asistencia en el Territorio Histórico, según Convenio, por un importe de 6.000,00 €.

**2.- Servicios al personal**

- Se han computado gastos de carácter diverso (materias relacionadas con la calidad y compras varias para las viviendas destinadas como alojamiento para familias refugiadas de Ucrania en la localidad de Samaniego) por importe de 20.776,30 €.
- El servicio de atención de la central telefónica de la Diputación Foral de Álava ha supuesto un importe de 106.118,34 €.
- Se adquirieron elementos de material de oficina para las distintas Unidades de la Diputación Foral de Álava, incluyendo papel de copiadoras e impresoras, cuyo importe ascendió a 91.610,12 €.
- Se adquirieron consumibles informáticos para las distintas Unidades de la Diputación Foral de Álava por un importe global de 38.841,68 €.
- Se ha adjudicado nuevos contratos de suministro de prendas de vestuario y calzado a distinto personal de la Diputación Foral de Álava por un importe de 71.585,95 €, cuyo coste posterior de lavandería ascendió a 7.474,84 €.

**3.- Komunikazioak**

- Telefono eta informatika komunikazioen zerbitzuak eman ziren, 256.862,21 euroko zenbatekodunak.  Gainera, herritarrei zerbitzu hobea emateko instalazioak modernizatzeko helburuaren barruan, IVR telefonogune berri bat abian jarri zen. Hasiera batean zergadunei Ogasunarekiko harremanetan arreta emango dien arren, zeharkako ekipamendua denez, aurreikusten da gainerako deiei arreta emateko egokitzea pixkanaka. Urte horretako mantentze gastua 39.989,40 euro izan zen.
- Posta bidezko komunikazio, mezularitza, barne posta eta abarren kariaz, 650.924,55 euro ordaindu ziren, guztira.
- Kontzeptu horren zioz, Agentzia Exekutiboari zegokion 32.101,72 euro ordaindu zen, eta agentziak gero itzuli egin zuen.

**4.- Bulegoko tresneria**

- Funtzio anitzeko ekipamenduen alokairu eta mantentze kontratuak sinatu ziren, guztira 139.130,08 eurokoak.
- Konponketa eta mantentze jarduketen zioz eta Arabako Foru Aldundiaren bulegoko ekipoen mantentze lanetarako kontratuen zioz, 3.684,74 euro ordaindu zen guztira.
- Arabako Foru Aldundiko unitate batzuetarako zenbait tresna tekniko eta bulegoko ekipamendua erosi ziren, 5.650,07 eurokoak.

**5.- Informatika**

- IBM etxearen prozesadore zentralen eta AKSAren inprimagailu zentralizatuen alokairua 3.871.682,26 euro izan zen.
- AKSAren ekipo zentralizatuetan eta Arabako Foru Aldundiko sail batzuetan instalatutako programen kostua 1.132.611,35 euro izan zen.

**3.- Comunicaciones**

- Se prestaron servicios de comunicaciones telefónicas e informáticas por importe de 256.862,21 €. Además, dentro del objetivo de modernización de instalaciones para prestar un mejor servicio a la ciudadanía, se puso en marcha de una nueva centralita IVR que, aunque inicialmente atenderá a los contribuyentes en su relación con Hacienda, al ser un equipamiento transversal, se prevé la progresiva adecuación para la atención del resto de llamadas, suponiendo el gasto de mantenimiento este año una cantidad de 39.989,40 €.
- Se abonaron en concepto de comunicaciones postales, mensajería, valija interna, etc, un total de 650.924,55 €.
- Por el mismo concepto se abonaron 32.101,72 € correspondientes a la Agencia Ejecutiva, posteriormente reintegrados por la misma.

**4.- Equipos de oficina**

- Se suscribieron contratos de alquiler-mantenimiento de equipos multifunción por un importe total de 139.130,08 €.
- Las actuaciones de reparación y conservación, así como los oportunos contratos de mantenimiento de equipos de oficina de la Diputación Foral de Álava supusieron un importe global de 3.684,74 €.
- Se adquirió diverso instrumental técnico y equipamiento de oficina para distintas unidades de la Diputación Foral de Álava por importe de 5.650,07 €.

**5.- Informática**

- El alquiler de los equipos procesadores centrales de IBM y de las impresoras centralizadas del CCASA supuso un importe de 3.871.682,26 €
- El coste de los programas informáticos instalados en los equipos centralizados del C.C.A.S.A. y en diversos departamentos de la Diputación Foral de Álava ascendió a 1.132.611,35 €.

- Arabako Foru Aldundiaren parke informatikoaren mantentze-lanen kostua, bai sinatutako kontratuek jasotako lanei lotutakoa, bai kontratuotan hitzartu gabeko konponketa jarduketei lotuta, 196.847,53 eurokoa izan zen.
- 2020an, lanpostuko ekipo informatikoen parkea berritzeko proiektua hasi zen, ekipamendu horiek prestazio batzuk eskain ditzaten, bai hardwareari dagokionez, bai softwareari dagokionez, denboran zehar etengabe hazten diren premiei erantzuteko.

  Arabako Foru Aldundiaren informatika parkea modernizatzeak 221.715,56 euroko kostua izan zuen ekipamenduen hornidurari eta ezarpenari dagokienez.

  Kontratu horretan jasota daude, hala berean, kontsultei eta gorabeherei erantzuteko zerbitzuak eta euskarri mikroinformatikoa. Proiektuaren zati horren balioa 572.058,84 eurokoa izan da.
- Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios IZENPE SA enpresari ziurtapen elektronikoaren (identifikazioa, autentifikazioa eta sinadura) eredu komuna eta konfiantza zerbitzuak eta datuen bitartekotza garatzeko baliabide propio gisa egindako enkargutik eratorritako betebeharrei aurre egiteko ordaindutako zenbatekoa 208.370,12 euro izan da.
- AKSA Arabako Foru Aldundiarentzat eta haren erakunde autonomoentzat Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien eremuan duen berezko bitartekoa denez, informazio sistemak hobetzeko definitutako proiektuen garapenak zuzenean kudeatzeaz arduratzen da urtero. Horien kostu zenbatetsia honako hauek osatzen dute: bai AKSAk zuzenean garatutako zerbitzuen kostuak (Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzaren aurrekontuari egotziak), bai proiektu zehatz bakoitzaren eremuan egin beharreko kanpo kontratazioen kostuak (proiektuen hartzaile diren sailen aurrekontuei egoztekoak). Azken talde horren barruan, aplikazioen mantentze lan orokorraren kanpo kostua ere sartzen da Zerbitzu Orokorren



- El coste de mantenimiento del parque informático de DFA, tanto en virtud de los contratos firmados, como de las actuaciones de reparación no contempladas en los mismos ascendió a 196.847,53 €.
- En 2020 se inició el proyecto de renovación del parque de equipos informáticos de puesto de cara a que los mismos ofrezcan unas prestaciones, tanto en lo relativo a hardware como a software, acordes con unas necesidades que crecen permanentemente en el tiempo.

  El coste de la modernización del parque informático de la Diputación Foral de Álava, en lo que se refiere a suministro e implantación de los equipos ascendió a 221.715,56 €

  El contrato comprende, asimismo, los servicios de atención de consultas e incidencias y el soporte microinformático. Esta parte del proyecto ha ascendido a la cantidad de 572.058,84 €.
- El importe abonado para hacer frente a las obligaciones derivadas del encargo como medio propio a la empresa Ziurtapen eta Zerbitzu Empresa-Empresa de Certificación y Servicios IZENPE, S.A. para el desarrollo de un modelo común de certificación electrónica (identificación, autenticación y firma), así como de servicios de confianza y de intermediación de datos ha ascendido a 208.370,12 €.
- Dado el carácter de medio propio que el CCASA ostenta en el ámbito de las Tecnologías de la Información y la Comunicación para la Diputación Foral de Álava y sus Organismos Autónomos, anualmente se encarga la gestión directa de los desarrollos de los proyectos definidos para la mejora de los sistemas de la información. El coste estimado de los mismos se compone tanto del coste de los servicios desarrollados directamente por el CCASA (imputados al presupuesto de la Dirección de Servicios Generales) como del de las contrataciones externas que el mismo deba realizar en el ámbito de cada proyecto concreto (imputable a los presupuestos de los departamentos destinatarios de los diferentes proyectos). Dentro

aurrekontuan. 12.122.460,62 euro izan dira, guztira, horiengatik ordaindutakoa.

- Arabako Foru Aldundiko sailetarako hainbat mikroinformatikako elementu erosi ziren, 17.871,24 euro ordainduta.

**6.- Laborategia**

- Laborategi Orokorraren funtzionamendu-gastuek, material berezien hornidurari eta ekipoen mantentze-lanei dagokienez, 135.273,57 euroko guztizko kostua ekarri zuten. Ekipo berrien horniduraren kostua 16.959,57 euro izan zen.

**7.- Ibilgailuak**

- Ibilgailu parkeko makineria eta instalazioak eta harekin loturiko material bereziak mantentzeak 92.206,94 euroko gastua eragin zuen.
- Ibilgailuen Zerbitzuak ibilgailuen mantentze lanak egin zituen, eta, horren ondorioz, kanpoko hainbat hornidura eta zerbitzu kontratatu behar izan ziren. Horien kostua 454.278,17 euro izan zen.
- Arabako Foru Aldundiaren parkea osatzen duten ibilgailuak erregaiz hornitu ziren, guztira 625.424,79 euro gastatuta.
- Arabako Foru Aldundiaren ibilgailuen trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga 37.356,35 euro izan zen.
- Tailerreko makinen hainbat elementu erosi ziren, ibilgailuen atalean erabiltzeko, eta 38.415,26 euroko kostua izan zuten.
- Sinatutako lankidetza hitzarmenari loturik, INDESA 2010 SLren ibilgailuetan egindako lanen kostua 70.606,17 euro izan zen.
- Hainbat ibilgailu erosi ziren jasangarritasun irizpideekin eta ingurumen inpaktu txikiarekin,



de este último grupo también se incluye en el presupuesto de Servicios Generales el coste externo del mantenimiento general de aplicaciones. El total abonado por estos conceptos ha ascendido a 12.122.460,62 €.

- Se adquirieron diversos elementos de microinformática para los distintos Departamentos de la Diputación Foral de Álava por importe de 17.871,24 €

**6.- Laboratorio**

- Los gastos de funcionamiento del Laboratorio General, en cuanto a suministro de materiales especiales y mantenimiento de sus equipos supusieron un coste global de 135.273,57 €. El coste del suministro de nuevos equipos ascendió a 16.959,57 €.

**7.- Parque Móvil**

- El coste de mantenimiento de la maquinaria e instalaciones del Parque Móvil y los materiales especiales asociados al mismo ascendió a 92.206,94 €.
- Por el Servicio de Parque Móvil se desarrollaron tareas de mantenimiento de vehículos, que conllevaron la contratación externa de diversos suministros y servicios, y cuyo coste ascendió 454.278,17 €.
- Se suministraron carburantes a los vehículos integrantes del Parque de la Diputación Foral de Álava por un valor total de 625.424,79 €.
- El impuesto de circulación de la flota de vehículos de la Diputación Foral de Álava fue de 37.356,35 €.
- Se adquirieron diversos elementos de maquinaria de taller con destino al Parque Móvil por importe de 38.415,26 €.
- El coste de los trabajos realizados en la flota de vehículos de INDESA 2010,S.L. al amparo del convenio suscrito ha ascendido a 70.606,17 €
- Se adquirieron diversos vehículos con criterios de sostenibilidad y bajo impacto medioambiental para

langileak garraiatzeko, 336.808,37 euroko zenbatekoarekin, eta garbigailu elektriko bat 18.089,50 eurorekin.

**8.- Instalazioetako mantentze lanak**

- Hainbat instalazio eta makinariaren mantentze lanetarako kontratu batzuk sinatu ziren zenbait enpresarekin, eta ildo bereko lanak egin ziren; gainera, beharrezko materialak eta tresnak eskuratu ziren, 564.007,91 eurokoak.
- Kanpoko lanak eta zerbitzuak kontratatu ziren, 19.946,93 eurokoak.
- Instalazio teknikoetan 67.883,85 euroko inbertsioak egin ziren.

**9.- Eraikinetarako zerbitzuak**

- Hainbat enpresarekin kontratatutako garbiketa zerbitzuen kostu osoa 1.882.497,06 eurokoa izan zen, eta garbiketa produktuetan gastatutako zenbatekoa 1.156,80 eurokoa izan zen.
- Aldundiaren instalazioen energia elektrikoaren horniduraren kostua 1.625.975,38 eurokoa izan zen.
- Aldundiaren instalazioetan kontsumitutako berokuntzako erregaien kostua (gasolioa zein gasa) 326.269,62 eurokoa izan zen.
- Ur kontsumoen eta saneamenduko eta hondakin uren udal tasen kostua 88.404,24 eurokoa izan zen.
- Material elektrikoa hornitzeko gastua 89.267,62 eurokoa izan zen guztira.

**10.- Moldiztegia**

- Inprimategiko makinen eta instalazioen mantentze lanen kostua 23.551,60 eurokoa izan zen.
- Gaitasunik edo teknologia berekirik ez dagoeneko lanak azpikontratatzeari dagokionez, 9.369,81 euro gastatu ziren.
- Materialak erosteko kapituluan, 81.234,78 euro

transporte de personal por un importe de 336.808,37 € y una barredora eléctrica por 18.089,50 €

**8.- Mantenimiento de instalaciones**

- Se suscribieron diversos contratos de mantenimiento de distintas instalaciones y maquinaria con diferentes empresas y se realizaron labores en el mismo sentido, junto con la adquisición de los oportunos materiales y herramientas necesarias, por un importe de 564.007,91€.
- Se contrataron trabajos y servicios exteriores por importe de 19.946,93 €.
- Se realizaron inversiones en instalaciones técnicas por un total de 67.883,85 €.

**9.- Servicios a edificios**

- El coste global de los servicios de limpieza contratados con diversas empresas ascendió a 1.882.497,06 €, siendo el importe gastado en productos de limpieza de 1.156,80 €.
- El coste del suministro de energía eléctrica de las instalaciones de la Diputación fue de 1.625.975,38 €.
- El coste de los combustibles de calefacción consumidos por las instalaciones de Diputación (tanto gasóleo como gas) ascendió a 326.269,62 €.
- El coste de los consumos de agua, así como de las tasas municipales de saneamiento y residuales fue de 88.404,24 €.
- El gasto en el suministro de material eléctrico ha supuesto un total de 89.267,62 €.

**10.- Imprenta**

- Los costes de mantenimiento de la maquinaria e instalaciones de la Imprenta fueron de 23.551,60 €.
- En el apartado de subcontratación de trabajos para los que no se dispone de capacidad o tecnología, se gastaron 9.369,81 €.
- En el capítulo de compra de materiales se

ordaindu zen.

- Inprentako makinerian 83.338,75 euroko inbertsioak egin dira.

**11.- Zuzendaritza Orokorra**

- Langile Laguntzaileen Zerbitzuaren bidez, zenbateko txikiko hainbat behar materiali erantzun zitzaien, oro har, foru diputatuen ohiko jarduera garatzetik sortutako protokolo gastuei erantzuteko, guztira 2.877,86 euro ordainduta.

DIRU SARRERAK

Ondoko kontzeptuei doazkien zenbateko hauek jaso dira:

- 2020ko urriaren 14an, hitzarmena sinatu zuten Arabako Foru Aldundiak (Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren bidez) eta INDESA 2010 SLk, eta haren bidez, Ibilgailuen Zerbitzuak konpromisoa hartu zuen INDESAren ibilgailuak konpontzeko eta mantentze lanak egiteko zerbitzua emateko. Azken horri dagokio piezen eta materialen kostua ordaintzea, baina ez eskulana. 2022an 68.406,53 euroko diru sarrera onartu da kontzeptu hori dela eta.

- 2021eko otsailaren 26an, hitzarmen bat sinatu zen Arabako Foru Aldundiaren eta Araba Garapen Agentziaren arteko lankidetzarako, AGA sustatzailea den jarduera guztietan, ikerketa geologiko geoteknikoko kanpainekin lotuta, bai eta materialen karakterizazio proba eta saiakuntzekin ere, parametro mekanikoak, fisikoak eta kimikoak ebaluatzeko. Lankidetza hori Enplegua, Merkataritza eta Turismoa Sustatzeko Saileko Laborategi Orokorreko Zerbitzuaren eta Arabako Foru Aldundiko Foru Administrazioaren bidez emango da, kasu bakoitzean beharrezkoak diren lanak eginez.

  Lan horiek egiteagatik 913,72 euroko diru sarrera aitortu da.



abonaron 81.234,78 €.

- Se han realizado inversiones en maquinaria de imprenta por valor de 83.338,75 €.

**11.- General Dirección**

- Se atendieron, a través del Servicio de Personal Auxiliar, diversas necesidades materiales de pequeña cuantía para dar cobertura a gastos de carácter protocolario generados por el normal desarrollo de la actividad de los Diputados Forales, por un importe global de 2.877,86 €.

INGRESOS

Se han recibido las siguientes cantidades por los siguientes conceptos:

- Con fecha 14 de octubre de 2020 se suscribió un Convenio entre la Diputación Foral de Álava, a través del Departamento de Fomento del Empleo, Comercio y Turismo y de Administración Foral e INDESA 2010, S.L., por el que el Servicio de Parque Móvil se compromete a la prestación del servicio de reparación y mantenimiento del parque móvil de INDESA, a quien le corresponde abonar el coste de las piezas y materiales, sin incluir la mano de obra. En 2022 se ha reconocido un ingreso por este concepto de 68.406,53 €.

- Con fecha 26 de febrero de 2021 se firmó un convenio para la colaboración de la Diputación Foral de Álava con Álava Agencia de Desarrollo (AAD) en todas aquellas actividades en las que AAD sea promotora, relacionadas con campañas de investigación geológico-geotécnicas y también con actuaciones como pruebas y ensayos de caracterización de materiales para evaluar parámetros mecánicos, físicos y químicos. Dicha colaboración se prestará a través del Servicio de Laboratorio General del Departamento de Fomento del Empleo, Comercio y Turismo y de Administración Foral de la Diputación Foral de Álava mediante la realización de los trabajos que en cada caso resulten pertinentes.

  Por la realización de estos trabajos se ha reconocido un ingreso de 913,72 €.

- Guztira 1.584,52 euroko diru sarrerak jaso dira fakturetan egindako ordainketengatik.
- Sociedad Estatal Correos y Telégrafos SA enpresari esleitutako posta zerbitzuen kontratuaren xedea da "Posta zerbitzuak ematea Arabako Foru Aldundiarentzat eta Dirubilketa Exekutiboa kudeatzen duen erakundearentzat". Zerbitzu Orokorrek emandako zerbitzu guztiak ordaindu zituen, eta, ondoren, lurraldeko zerga kudeaketaren jakinarazpenak banatzeagatik beren gain hartutako zenbatekoa itzultzeko eskatu zen. 2022an, 32.101,72 euroko diru sarrera aitortu zen kontzeptu horrengatik.
- Kontratu horren barruan, besteak beste, zigorrak aurreikusi ziren jakinarazpenak oker egiteagatik, eta 2022ko ekitaldi osoan, 525,00 euroko diru sarrerak aitortu ziren.

  Gainera, beste kontratu batzuk ez betetzeak 6.415,96 euroko zigorrak ezartzea ekarri du.
- Moldiztegiko eta Ibilgailuen Ataleko hondakin materiala saltzeagatik 10.368,40 euroko diru sarrerak aitortu dira.
- Laudioko Ogasunerako lokalaren obrengatik hasieran ordaindutako tasak eta EIOZen zenbatekoa erregularizatzeagatik 2.291,78 euro jaso dira.
- Ibilgailuen Zerbitzuak sei eskabide aurkeztu zituen ibilgailu elektrikoak erosteko, Energiaren Euskal Erakundeak onartutako mugikortasun eraginkor eta jasangarrirako pizgarrien programaren barruan (MOVES III programa). 2022an 5.000,00 euro jaso dira kontzeptu horrengatik.

**14.- Arkitektura**

Arkitektura Zerbitzua arduratzen da Arabako Foru Aldundiko sailen lana behar bezala garatzeko behar diren obrak proiektatu eta zuzentzeaz, energia efizientziako eta bere jardueren iraunkortasuneko irizpideak lehenetsiz, bai eta kanpoko enkarguak

- Se han recibido ingresos por abonos en facturas por importe total de 1.584,52 €.
- El contrato de servicios postales adjudicado a la empresa Sociedad Estatal Correos y Telégrafos, S.A. tiene por objeto la "Prestación de servicios postales para la Diputación Foral de Álava y la entidad gestora de la Recaudación Ejecutiva". Por parte de Servicios Generales se abona la totalidad de los servicios prestados y posteriormente se requiere el reintegro del importe asumido por la distribución de las notificaciones de Gestión Tributaria Territorial. En 2022 se ha reconocido un ingreso por este concepto que asciende a 32.101,72 €.
- Dentro de ese mismo contrato se preveían, entre otras, penalizaciones por la realización incorrecta de las notificaciones, habiéndose reconocido unos ingresos en todo el ejercicio 2022 de 525,00 €.

  Además, otros incumplimientos de contratos han supuesto la imposición de penalidades por importe de 6.415,96 €.
- Se han reconocido ingresos por la venta de material de desecho de Imprenta y Parque Móvil por un total de 10.368,40 €.
- Por la regularización del importe del ICIO y tasas abonadas inicialmente por las obras del local para Hacienda en Llodio se han recibido 2.291,78 €.
- Por el Servicio de Parque Móvil se presentaron seis solicitudes para la adquisición de vehículos eléctricos, dentro del Programa de incentivos a la movilidad eficiente y sostenible (Programa MOVES III) aprobado por el Ente Vasco de la Energía. En 2022 se han recibido 5.000,00 € por este concepto.

**14.- Arquitectura**

El Servicio de Arquitectura se ocupa de proyectar y de dirigir las obras necesarias para el correcto desarrollo del trabajo de los distintos departamentos de la Diputación Foral de Álava, priorizando los criterios de eficiencia energética, sostenibilidad en

gainbegiratzeaz ere. Halaber, Foru Aldundiaren jabetzako eraikinen mantentze lanak egin eta altzariz hornitzen ditu. Zerbitzuaren esku hartze ugarien artean, honako hauek nabarmendu behar dira, jarduera guztien garapen zehatza egin gabe eta garrantzitsuenak eta esanguratsuenak ardatz hartuta:

- Next Generation funts europarren "Eraikin publikoen birgaikuntza bultzatzea" izeneko PIREP programarekin lotutako proiektuak:

  Ignacio Aldecoa Gasteizko Kultura Etxearen birgaitze energetikorako proiektua

  Obren aurrekontua: 7.843.284,40 €

  Proiektuaren xedea da Ignacio Aldecoa Kultura Etxearen birgaitze integrala egitea (Florida pasealekua 9, Gasteiz) eta energia primario berriztaezinaren kontsumoa gutxienez % 30 murrizteko egin beharreko jarduketak zehaztea. Erabilera anitzeko eraikina da, gaur egun liburutegi publiko eta ikasketa gela gisa erabiltzen dena. Gainera, hainbat areto ditu, kultura arloko hainbat jarduera publiko egiteko, hala nola literatura aurkezpenak eta hitzaldiak, antzerki emanaldi txikiak (ekitaldi aretoan). Dokomomoko inbentarioan jasotako eraikin babestua da. Antonio Fernández Alba eta José Erbina arkitektoek proiektatu zuten, eta hiriko gune pribilegiatuenetako batean kokatuta dago (Florida parkearen perimetroan, landaredi zabal batez inguratuta); 1970ekoa da, katastroan jasotako informazioaren arabera (1974an inauguratu zen).

  Arabako Foru Aldundiaren Jauregiaren birgaitze energetikorako proiektua

  Obren aurrekontua: 2.177.592,00 €

  Energia primario berriztaezinaren kontsumoa gutxienez % 30 murrizteko eta kalifikazio energetiko egokia lortzeko egin beharreko jarduketak definitzea.



sus actuaciones, así como de supervisar los encargos externos. Se dedica también a mantener y a amueblar los edificios de propiedad Foral. Entre las múltiples intervenciones del Servicio cabe destacar, evitando un desarrollo exhaustivo de todas las actuaciones, y centrándonos en las más importantes y significativas las siguientes:

- Proyectos relacionados con el programa PIREP, de “Impulso a la Rehabilitación de los Edificios Públicos”, de los fondos europeos Next Generation:

